

## **ESKOLETAKO JANGELETAN, ZER JAN HALAKO BAZTAN**

Belanaldiz belanaldi Baztan baztandarron elikadura ona izateko iturri bikaina izan da. Izan ere, gaur egun, gure baserriek eta landa-inguruneak oraindik kalitate handiko elikagaiak ekoizten eta eraldatzen dituzte.

Gogoan izan behar dugu bertako produktuak ekoizteak eta jateak gure elikaduraren jabe egiten gaituela; landa-ingurunea, baserriak eta paisaia zaintzen laguntzen digula; eta gure nekazaritza, abeltzaintza, elikadura eta ekonomia jasangarriagoak egiten dituela.

Zentzu horretan, Baztango Udalak, sektore hori bizirik irauteak duen garrantzia defendatzen duenak, baztandarrok jakinaren gainean egotea eta sensibilizatu nahi ditu bertako produktuak jatearen garrantziaren inguruan. Hori dela eta, elikagaiok geure eguneroko elikaduraren parte izateko helburuarekin “ZER JAN, HALAKO BAZTAN” proiektua martxan jarri du. Egitasmo horren bidez bertako elikagaiei buruzko informazioa hedatzeko ekintza desberdinak garatzen hasiak gara.

Proiektu honen barruan, Baztango ikastetxeek ere bertako ekonomian eragin zuzena dutela ikusirik, ikastetxeetako jangeletan, bertako produktuei ematen zaien garantiza aztertu nahian, gaur egungo egoeraren diagnosi bat egin dugu.

Gaur egun Baztanen 12 eskola ditugu, hauetako zazpiek jantokia dute, Amaiur, Arizkun Elizondoko eskola, Baztan ikastola, Haur eskola, Erratzu eta Irurita. Jantokirik ez dutenak Ziga, Oronoz, Almandoz, Arraioz eta Gartzain dira.

### **Aztertutako puntuak**

Diagnosi hau egiteko, ondoko puntuak aztertu dira:

- Nor da ikastetxean jangeletako aferetaz arduratzen dena.
- Ikastetxean sukaldatzen al da edo jakiak prestatuak ekartzen dira.
- Nola erabakitzen edo zehazten dira menuak.
- Nork erabakitzen du zer/non erosi eta zer prestatu.
- Kontutan hartzen ote den jakien jatorria.
- Non egiten dira janari erosketak.
- Bertakoa kontsumitzen saiatzen dira, edo gai honi garrantzia ematen ahal zaio.
- Garrantzia eman beharko litzaiokeela uste da.
- Kantitateak egokiak al dira edo sobera aunitz izaten da. Razio osoak sobratzen al dira.
- Probesten ahal zirela uste da.
- Nor arduratzen da sortzen diren hondakinetaz.

- Datu ekonomikoak: aurrekontua, haur kopurua, menuaren prezioa...

## **Eskolaz eskola**

Hauek izan dira, eskolaz eskola jasotako datuak:

### **AMAIUR**

Amaiurko eskolako jantokia, jantoki ofiziala da, "Ohiko jantokia" izena du, eredu hauetako jantokiek Nafarroako Gobernuak dirulaguntza jasotzen dute. Eskola guztietan, baserrietako hurrek dirulaguntza dute, Amaiurko eskolan berriz, Nafarroako Gobernuak jantokian gelditzen diren haur guztientzat laguntza ematen du.

Jantokiaren gestioa "auzolan" bidez egiten dute, Amaiurren ez dago Guraso elkarterik. .

Erosketak gurasoen artean egiten dira, kurtso hasieran planing bat egiten da eta lanak banatzen dira. Aste bakoitzeko erosketa egiteaz etxe bat arduratzen da. Jantokiko giltza dute eta eskolan utzi behar dituzte erosten dituzten elikagaiak.

Bazkaria prestatzeaz eta hurrei jateaz emateaz, herriko bi emakume arduratzen dira.

Menuak pediatria bat diseinatuak dira.

Produktuak beti bertan erosiak izan behar dute, ahal den neurrian, ekologikoak.

Ekoizle batzuk produktuak zuzenean eskolara eramaten dituzte, Jauregiakoak esnekiak, Zamailek haragia...

Soberakinak beti aprobetxatzen dira, adibidez, asteleheneko lekekin ostegunean purea egiten da.

Eskolan konposta dute eta soberakin organikoak bertara botatzen dituzte, horrela hurrek prozesu guztian parte hartzen dute.

Datu ekonomikoak:

Jangelako erabiltzaile kopurua: 29

Sukaldari eta zaintzailea: 9.446,25

Erosketak: 8.656,54

Aseguruak eta banku komisioak: 219,15

Ikasle bakoitzak 5,591 euro ordaintzen ditu menu bakoitzeko.

Guztira, 18.321,94 euroko aurrekontua dute.

### **ELIZONDOKO ESKOLA**

Elizondoko eskolako jantokia, eskualdeko jantokia da, hau da, eskolara joateko garraioa behar duten ikasleak hartzen dituzten eskolek dute jantoki eredu hau. Jantoki hauen antolakuntzaren ardura, Nafarrako Gobernuak, Eskola kontseilua eta eskolen zuzendaritzak izango du.

Eskolako jantokiaren gestioa, lau urtetatik lehiaketara ateratzen da. 2016-2017 ikasturtean aldatzea tokatzen da. Orain arte, jantokiaren zerbitzua emango zuen enpresaren aukeraketa Eskola kontseiluak egiten zuen, baina aurrean, Nafarroako Gobernuak irizpideak aldatzea erabaki du eta %66a Nafarroako Gobernuak jarritako irizpideak jarraikiz egingo da eta Eskola kontseiluaren esku, erabakiaren %34a egongo da.

Nafarroako Gobernuak, jantoki zerbitzua emango duen enpresa aukeraketarako ezarritako irizpideen artean ez zaie bertako produktuei garrantzirik ematen.

Datu ekonomikoak:

-Jangelako haur kopurua: egunero edo maiztasun batekin gelditzen diren ikasleak 137 dira.

-Zenbat ordaintzen du erabiltzaile bakoitzak: Dirulaguntza jasotzen dutenek 1.75€ ordaintzen dute. Egunero edo maiz gelditzen direnek 4.50€ eta noizbehin gelditzen direnek 5 €.

Jangelako aurrekontua: jangelako gastuak 18.000 € dira gutti gora behera (Enpresaren fakturak, bertzelako gastuak...).

Nafar Gobernutik 12.500 €ko dirulaguntza jasotzen dute, hiru ordainketetan banatua. Gainerakoa ikasleen kuotekin ordaintzen da.

## **BAZTAN IKASTOLA**

Baztan ikastolan irakasle goak du jangelaren ardura. Irakasle bat izendatzen dute jangelako arduradun. Honek egiten ditu ordainketak, gurasoekin kurtso haseran bilera, catering enpresarekin solastu, begiraleekin egon...(Jasone da arduraduna).

Jakiak prestatuak ekartzen dira. Itzalargikobordan prestatzen dira eta beraiek ekartzen dute janaria. Itzalargiko Bordak menu bat aurkezten du, dietista batek prestatu eta onartua. Eskumenik badago, aldaketak egiteko aukera dago, hitz eginez gero. Zer eta non erosi beraiek erabakitzen dute (Itzalargikoek).

Jakien jatorria kontutan hartzen da, enpresari bertako produktuak erosteko eskatu zitzaie eta horrela egiten dutela diote (ez da ziurtagiririk eskatzen). Ahal den guztia hemen inguruan erosten da. Bertakoa kontsumitzeari garrantzia ematen zaio ikastolan eta hala egin behar dela uste dute.

Soberakinak egunaren eta menuaren arabekoak dira. Batzuetan ratio osoak sobratzen dira, izena emandako guztiak agertzen ez direlako eta menuaren eta egunaren arabera ere gertatzen da osoak sobratzea.

Janari hondarrak organiko bilketarako bereizten dira. Batzuetan probesten ahalko zirela uste dute. Jangelako langilea arduratzen da hondakin hauetaz.

Datu ekonomikoei dagokionez, ez dago aurrekontu konkretu bat, ikasle kopuruaren arabera egiten dira kontuak. Jangelak, ez du dirulaguntzarik jasotzen.

Elizondokoek, hilabetean 88 euro ordaintzen dute, prezio honen barruan menua eta jangelako begilarearen soldata dago.

Herrietakoek gutxiago ordaintzen dute, 50 euro hilean, 88 euro tara ailegatzeko falta dena ikastolak hartzen du bere gain.

2015-2016 ikasturtean, parkeko ikastolako jangelan, 43 ikaslek jaten dute, Pilarrekoan 89, guztira 132 ikaslek jantokian jaten dute.

Menua 4€ tan ateratzen da batz bestea (88 eta 50€ arteko batzbertzekoa 69€ hilabetean /17 egun jangela hilabetean batzbertze). Hemen jangelako begilarearen soldata ere sartzen delarik.

Urteko, gutxi gora beherako gastua 60.720 euro ingurukoa da.

### **HAUR ESKOLA**

Baztango Haur eskolaren jantokiaren gestioa Baztango Udalak eramaten du. 2013an lehiaketa publikora atera zuen. 3 enpresa aurkeztu ziren. Enpresa kontratatzeke erabakia hartzeke teknikari bati txosten bat eskatu zioten.

Enpresa aukeraketarako kontutan hartu ziren irizkideak hauek izan ziren:

- Menuen barietatea
- Jatekoak erabiltzaileen arabera egokitzea
- Nekazaritza ekologikoko elikagaiak sartzeara
- Hurbil ekoizten diren elikagaiak sartzeara
- Jatorri deitura eta produkzio integratua dutenak

Orain aipatutako irizpideak eta irizpide ekonomikoak kontutan hartuz, 3 urtetako jantokiaren gestioa Ausolan enpresak lortu zuen. Enpresa honek, menua 2,90 + bez kobratzen du.

Haurrei bazkaltzera emateko momenturako bi zaintzaile kontratatzen dira. Momentu honetan, 46 haur daude jangelan. Gurasoen errentaren arabera, bi kuota desberdin ordaintzen dituzte, 95 edo 84 euro hilean, 11 euroko diferentzia Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen du.

2015-2016 ikasturteko aurrekontua 49.343 eurokoa da, gurasoen ekarpena 43.873,40 eurokoa da eta gainontzekoa Nafarroako Gobernuak jartzen du,

5.469,60 euro. Hezkuntza departamentuak ordainketa hau bi zatitan egiten du, lehenbiziko ordainketa hitzarmena sinatzen denean, 2016ko lehenbizio hiruhilabetean %80a eta hurrengo gastuak justifikatu ondotik.

Normalean, ratioak ongi kalkulatuak daude eta ez da janari gehiegi sobratzen.

Hurrengo urtean kontratua bukatzen zaie eta Udalak berriz konkurtsora aterako du, gestioaren formula berriak aurkitzeko lanean hasia da.

## **IRURITAKO ESKOLA**

Iruritako eskolako jantokia, Guraso elkarteak kudeatzen du.

Janaria ez da bertan prestatzen, catering enpresa batek zerbitzua eskeintzen du, Itzalagikobordak, hain zuzen ere.

19 haur gelditzen dira jantokian. Hilabetero 85 euroko kuota fijo bat ordaintzen dute haur bakoitzeko, kuota honekin ez da kostuan 100% ordaintzen, beraz, defizit hau osatzeko, Guraso Elkarteak ekintza desberdinak antolatzen ditu dirua ateratzeko, boletoak, kamisetak saldu. Jantokiak ez du Nafarroako Gobernuko dirulaguntzarik jasotzen.

Razioei dagokionez, normalean ez da janaririk sobratzen.

Jangelan, haurrei bazkaltzen laguntzeko eta zaintza lanetarako bi pertsona kontratatatuak datu.

Ikasturte honen langelaren aurrekontua 16.150 eurokoa da.

## **ARIZKUNGO ESKOLA**

Jantokian gelditzen diren haurren gurasoak dira gestioaren arduradunak. Itzalagikobordatik ekartzen dute eguneroko janaria. Beraiek guraso bezala ez zieten baldintzarik jarri. Hilabeteko menua bidaltzen diete. Hasieran, zerbitzua kontratatu zutenean, produktu ekologikoak erabili zituela aipatu zieten, baina beraiek ez zioten guraso bezala eskaera konkreturik egin.

Soberan dauden janariak botatzen dituzte, legeak ez baitu onartzen haurrek elikagaiak etxera eramaten.

Zaintzaileak, soberakinak bere etxeko konpostara eramaten ditu.

Datu ekonomikoak:

Momentu honetan 12 haur daude jangelan. Haur bakoitzak 4,50 euro ordaintzen du menu bakoitzeko egunean. Zaintzaileari 11 euro ordaintzen diote ordua.

Bi gastuak kontutan hartuz, 6 eurotan gelditzen da egun bakoitzeko menua + zaintzailea.

2015-2016 ikasturteko aurrekontua 8.280 eurokoa izan da.

### **ERRATZUKO ESKOLA**

Erratzuko eskolako jantokia guraso elkarteak kudeatzen du. Jangelataz herriko emakume bat arduratzen da. Autonomia bezala jarri da eta berak egiten ditu erosketak, janaria prestatu, zerbitzatu eta haurren zaintza lanak, laguntza bezala, beste pertsona bat ere egoten da.

Menua erizain bate prestatzen die guraso elkartekoei eta gurasoek oniritzia ematen dio, gero menu hau jangelako arduradunari pasatzen zaio.

Erosketak herrian edo bailaran egiten ditu, etxeko jakiak ere eramaten ditu, barazkiak, frutak, arroltzeak.... eta Baztango haragia erosten du.

Denetara 16-17 haur daude jangelan eta familia bakoitzari egokitzeko asmoz, modalitate desberdinak daude:

- Astelehenetik ostiralera egunero jangelan gelditzen diren hurrek, hilabetean 95 euro ordaintzen dituzte.
- Astean bi egunez gelditzen direnak, 84 euro hilabetean.
- Egun soltetan gelditzen direnak, 8 euro ordaintzen dituzte.
- Astean egun bat gelditzen direna 24 euro hilabetean ordaintzen dituzte.
- Aste bat bertzea ez, 50 euro hilabetean.

Badira ere, 8 hilabetez gelditzen direnak edo 10 hilabetez.



Gutxi gora behera, 5 euro inguru atertzen da menu bakoitza eta hor sartua dago langile bat eta laguntzailearen soldata.

Aurrekontua osoa 9.200 eurokoa da.

### Laburbilduz

ESKOLA	HAUR KOPURUA	MENUAREN KOSTUA	LANPOSTUAK	AURREKONTUA
AMAIUR	29	5,59	1	18.321,94
ARIZKUN	12	4,50	1	8.280
ERRATZU	17	5	1	9.200
IRURITA	19	4,50	2	16.150
ELIZONDO	137	5 4,50 1,75	8	18.000
IKASTOLA	132	4	5	60.720
HAUR ESKOLA	46	3,19	2	49.343
<b>GUZTIRA</b>	<b>392</b>	<b>4,47 euro</b>	<b>20</b>	<b>180.014,94</b>

Hau da, Baztanen egunero 392 menu ematen dira, menu bakoitzaren batz besteko kostua 4,47 eurokoa da, 20 lanpostu sortzen dira zerbitzu honen inguruan, aurrekontua osoa 180.014,94 euro izanik.

**Beraz, Baztango eskoletako jantokiek, tokiko ekonomian eragina dute?**